

*Patxi Lasa Imaz*

*Beasain, Gipuzkoa  
(1929-2018)*

Aurkibidea

**Biografia**



1929an jaio zen Zaldizurreta baserrian. Ama Idiazabalgoa zuen eta aita Zaldizurretakoa bertakoa. Baserria "Duque del Infantado"rena zen eta beraiek erretereroak ziren. Baserria kale ondoan zegoen eta bi fundizio zituzten etxetik gertu. Baserria bota egin zuten Beasaingo anbulatorioa egiteko. Antzinako bizimoduari buruzko azalpen ugari eman zituen 2006an egindako elkarrizketan.

# Zintak

## BEA-039

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-01-18
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

## BEA-040

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-01-18
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV

# Pasarteak

## 1. Beasaingo garai bateko hizkera galtzen ari da

- **Erref:** BEA-039/001
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Lexikoa

### Laburpena:

Beasaingo euskara. Euskara galduz joan da; hitz asko galdu egin dira. "Betiko gaitze, ahaztu". Baserri inguruko hitz asko galduz doaz, batez ere erabiltzen ez direlako. Zaharren hizkera.

### Transkripzioa

- Euskerea, lehengo euskerea dana galdu in da ya.
- Bai?
- Lehengo jendek beste euskera ta errexago ta eitten zuen egunero ibiltzen zittuztelako. Ta ze esango noke... ba, ahaztu ein die hitz asko lehen ibiltzen zienak. Betiko gaitze: ahaztu. Baserriko erreminta izenak bakar-bakarrik´e danak ahaztu ein die. Gurdiik eamaten zitun trastek: eutsaga, kurtolak, ezpatak... hoik danak, danak ahazten ai die. Gaiñagea... ta holako gauzak danak ahazten ai die ta hitzek´e bai. Lehen baserri ingurun beti hitz horik ibili itten zien ta kalea junda´re bai esne kontue ta dana. Oain danak galtzen... galdu in die, ez da ibiltzen ta. Kito. Ta konbersazion´e galdu eitten die, nola ez dan ibiltzen.
- Ta berba konkretoetaz gain, askotan, ez dakit, espresioak edo... Ez? Esamolde asko lehenao erabiltzen zirenak eta orain ya gazteok, ba, ez ditugunak ezagutzen edo...
- Bai, oain hori atatzeta ez da hain errexeta.
- Orduan, aldaketa haundia somatzen duzu?
- Puf! Ikaragarria, ikaragarria. Ta geok´e ahazten ai gea, ya burue´re txarra daukuu ta horreatio esaten dizut hau ein balitz´e oain hoge urte... puf! O

hamabost. Nik ikusten det hizkera hura ahaztu ein dala. Ahaztu o utzi. Beste gauza batzuk, beste modu batzuk ikusten die bai telebistan, bai radion ta, hitzak jun ein die ta konbersazio hura ere bai.

## 2. Antzinako bizimodua lasaiagoa zen eta hitz egiteko denbora gehiago zegoen

- **Erref:** BEA-039/002
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:02:10. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

Antzinako bizimodua; hitz egiteko denbora gehiago. Arto-zuriketa; aitonak bertotan egiten zuen. Bertso zaharrak; bertsolariak. Errementaria ogibidez. Euskararen inguruko gogoetak. Bizimodu aldaketa; ohitura aldaketak.

### Transkripzioa

- Lehenago konbersaziorako astia egoten zen, gaiñera, ez?
- Bai. Bai, bai, bai. Ez zeon beste trasteik eta hitz egin behar. Garai baten arta-zuritzera jun ezker, ba, hizketan o... Gue aittona izaten zan kantun ibil... eitten zona. Bazeuken berso zaharran liburu bat eta handi ikasitakook. Hantxe kantari, gau guztin aitzen zan. Bueno, illuntzen juten giñen arta-zuritzera ta holako lanetaa. Kantuako zeuken bere... Zekitzen bersook: Txirritanak, Pedro Maria Otaño, nola da hori... Pello Errota ta hoik danak.
- Buruz?
- Buruz zekitzen, bai.
- Eta...
- Ta... zan er(re)mentarie. Bueno, er(re)mentarie, forjadorea zan, fabrikan [ibili zan]. Eta beti hortako izan zun bere gogo, kantuako. Beti, e? Gure amak esaten zion behin baiño gehiagotan, goizeko zazpitan jaikitzen ta txistu jotzen ia “tipirri, tipirri, tipi”, “Garai onak die, ba, oaintxe txistue jotzen aitzeko” esaten zion [holako...]. Osea, umorea, berezko, berezko... umorea. Beti umore onen jaiki edo. Jaiki ta seittun “ttipili, ttipili...” txistue. Oain beste gauza bat ahaztu dana da hoixe beste bat.
- Txistu eitea?
- Bai. Ez hola “fsssi”, e?
- Kantuan edo...?
- Kantue, kantue. Edo trikitixa o... jotzea. Hori dana ahaztu ein da. Lehen mundu guztie kalen “tipi, tipi” juten zien, horik txistu eiñaz. Eta holaxe gauza asko, ba... grazie jun in zaio. Ni neretzako [euskerai] grazi asko galdu do berezkoa zona.
- Bai. Eta ze zentzutan edo...?
- E?
- Grazia esaten duzunean ze zentzutan? Grazia esaten duzunean, ez? Euskerak...
- Ataldi haundik zittulako jendeek. Ataldie. Ta hola... burla eitteko gogoa´re bai izaten zan, e, bata bestei. Hola, taberna-zulotan ta holako... izaten zien batzuk grazie eitteko beti —andaluzek badue hori pixkat— bestei pixkat miñe erain o hola... eraitten dienak.
- Eta hemen ere bazegoen horrelako zer bait?

- Bai, bai, bazeon, bai. Bai, hasten zan broman ta bueno... holako jende berezik zien, holako grazi puskat zuena gauzak esateko ta beti holako buelta einda jendeekin ta parre eitteatio ta... beste gauzaik ez zeon.  
- Eta hori ere zeharo galdu da, ez?  
- E?  
- Hori ere zeharo galdu dela...  
- Bai, bai, bai, bai...

### 3. Txikiteoa bere gazte sasoian iritsi zen Beasaina

- **Erref:** BEA-039/003
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa

#### Laburpena:

<p>Bizimodu aldaketa; ohitura aldaketak. Txikiteoa, bera gaztea zenean Bizkaitik etorritako ohitura.</p>

### 4. Ama Idiazabalgoa zuen

- **Erref:** BEA-039/004
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

#### Laburpena:

Beasaingo euskara. Euskararen egoera. Hitzunaren jatorria; ama Idiazabalgoa eta aita Zaldizurreta baserrikoa. Amaren gaztetako ibilerak. Gaztetxoa zenean, osaba batekin artzain ibilitakoa.

#### Transkripzioa

- Eta, orduan, oraingo euskerak ez du horrelako...  
- Hitz asko falta die.  
- ... graziarik edo. Ez?  
- Nik netzako...  
- ... bizitasunik edo...?  
- Beste... beste... Hitz tekniko asko ibiltzen da, baiña... erderazko lehen sortu dien hitz berrik eta hori, hori... Erderan ´e lehen ez zien hitzek ibiltzen die oain erderan ´e. Teknikok, ez dakit. Mundue beste bide batetio dijolako da hori.  
- Hori, bakoitzak azkenean bere...  
- Eta euskeraz ´e hitz asko sartzen dittue erderazkok, ez daukelako... ez dakit, tradukzioik o ez dakit nola dan hori. Ez dakit.  
- Eta, orduan, hitz asko desagertu egin direla edo, bueno...  
- E?  
- Erabiltzen ez direnez hitz asko desagertzeko bidean daudela, ez? Aipatu dituzu baserriko tresnak edo...

- Lehenoko konbersazio [jende]... Puo! Asko, e? Puf! Nik buru txarra dauket, egie esan. Esan dizut ni ez naizela iñor euskeran gaiñen... Egongo dielako beste batzuk daukenak jakinduri gehiao hortaz, hizketan ée bai abildade gehiao.

- Ez, baiña zuk, behintzat, zeure euskera mantendu duzu, ez? Bertakoa, gaiñera. Bertan jaiotakoa zara...

- Beasaiñen? Bai, bai.

- Gurasoak ere bertakoak zien?

- Ama Idiazabalgoa ta aitte horkoa, Zaldizurretakoa. Gue ama gaztetan, ba, Donosti alden ibillitakoa zan serbitzen ta hoteletan ta... Oso emakume atsegiñe zan; koziñan ta josten ta prakak eitten ziun guri ta... dana eitten zona zan. Hautza juteako aurrena egon zan osaba batekin artzai. Nola da hori? Hor Alsasu ondón. Aber, aber, aber... Ez naiz gogoratzen.

- Eta artzai ibili zan bera?

- Bai, aste guztie beakin egoten zan eta larunbatetan oiñez etortzen zan Etxegarartetio. Eta gero ibili zan josten han Etxegarate biden Ursuaran, Ursuarango etxe, baserri baten neskai eakusten zien josten. Ta geo ibili zan Beasaiñen koziñan. Etxeti irtetzeako, e? Ta geo Donostia jun zan.

- Eta artzain esan duzu...

- Bai, bai, harek gazta eitten ta dana zekin.

- ... bere senideren batekin edo?

- E?

- Senideren batekin-edo ibili zen artzai?

- Edo osaba batekin.

- Osaba batekin...

- Eta bera bakarrik ala osabarekin batera biak ibiltzen zien?

- Bai, alkarrekin ibiltzen zien. Hura launtzea juten zan; ba, sukaldeen ta gazta eitten ta eakutsi zion ta holaxe ibiltzen zien. Aste guztie han pasatzen zon.

- Bizimodu gogorra izango zen hori, ez?

- Pff! Ta geo oiñez etorri [han].

- Eta ze ingurutan izaten zituzten... artaldea non izaten zuten?

- Artzaie nun eoten zan?

- Bai edo...

- Ez naiz gogoratzen, la ostra, izena. La ostra. Txabolea ta guzti zuen, bertan lo ta guzti... La ostra... Nola da?

- Ba, berdín da.

## 5. Eskolara joan aurretik, ganadua zaindu behar

- **Erref:** BEA-039/005
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

### Laburpena:

Bizimodua zenbat aldatu den; belaunaldi desberdinak. Umetako kontuak. Goizean goiz esnatu eta eskolara joan aurretik ganadu-zain joaten zen basora. Ama, zazpietarako herrira jaisten zen esne-saltzera. Gogorik ez eskolara joateko.

## 6. Amak sukaldaritza ikasi zuen eta Donostiara joan zen zerbitzatzera

- **Erref:** BEA-039/006
- **Iraupena:** 0:06:35. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Lanbideak » Neskameak

### Laburpena:

Amaren inguruko pasadizoak. Etxegarate inguruko baserri batean josten ikasi zuen. Beasaingo Fonda Paco-n sukaldaritza klaseak hartu zituen. Gerora Donostiara joan zen hotel batera lan egitera. Hango kontuak. Beasainen feriara joateko ohitura. Etxeko giroa; elikadura.

## 7. Zaldizurreta baserria

- **Erref:** BEA-039/007
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

### Laburpena:

Gurasoen jatorria. Zaldizurreta baserria, Duque del Infantado-ren zen. Baserri ondoan bi lantegi handi zeuden, horietako bat Bernedo. Garai batean Beasainen kutsadura handia zegoen; lantegi asko herrigunean.

### Transkripzioa

- Esan didazu, bueno, ama Idiazabalgoa...  
- Bai.  
- Ez? Donostiatik...  
- Bueltan ibilitakoa.  
- ... honuntza etorri eta ya ezkondu.  
- Ezkondu zan baserria eta hortxe.  
- Eta baserria, Ardantza baserrira edo...?  
- E?  
- Ze baserri? Baserriaren izena?  
- Zaldizurreta. Hor kalea ta guzti dao. Hoi dana Zaldizurreta kalea da, hor anbulatorioa daon hori. Haren izenakin geatu da.  
- Baserriaren izena hartu du, orduan?  
- Bai. Ama´re baserrikoa zan, noski.  
- Eta baserri hori norena zen edo historia...?  
- Duque del Infantado. Hor Lazkaon palazioa dauke. Hori Madrilgoa zan Duque del Infantado. Ta horrek ez zon eze saltzen; arreglau´re ezer ez. Baserrie kanpotio behintzet, ba, itsusitzen-itsusitzen jun zan. Behin gogoratzen naiz nola zurittu gendun, ta oso politte geatu zan. Baiño hortako... Oin itten dien bezela, porlanakin hartu harrie ta... Harri ona zon. Noski, ondo indako etxea zan. Ta, bueno, zahartu in zan. Eta beti ai zien esaten bota in behar zuela ta udaletzek erosi zon eta hor ein zoen anbulatorioa. Ta oin hortio aldatzea dijozte beste leku batea. Oain ai die itten berrie berriz´e. Ta hor zien bi enpresa haundi zien hor, gue etxe

ondon: Bernedo —oain aparkalekue hor dao, oain anbulatorioa [eitten ai dien] lekue— ta bestea beste alderdin fundizio bat zeon. Oseake, genden simaur arten, eon giñen hor gazte-denboran gu. Bi fundizio etxetio ehun metroa ta ehun metroa. Bi aldetaa: erreken beste alden ta gue alderdin´e bai. Ta gue sorotako gauzea oso zikiñe izaten zan, ke asko izaten zalako. Oain ez konparau... hemen ez dakit ze kontaminazio eongo dan, baiño garai hartan´e Beasaingo herrin... Enpresa asko zien herri barrun ta.

- Bai, eta, gaiñera, enpresa zikiñak, ez?
- Zikiñak.
- Fundizioak eta...
- Fundiziok eta forjak eta kea... ikatz asko erretzen zuen...

## 8. Zaldizurreta baserria eta ingurua

- **Erref:** BEA-039/008
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

### Laburpena:

Zaldizurreta kale-baserria zen. Poliki-poliki lur-sailak galduz joan ziren, askotan saltzera behartuta: Renfe, errepide nazionala, etab. Soroak; toponimia.

## 9. Zaldizurreta baserria duke batena zen

- **Erref:** BEA-039/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

### Laburpena:

Zaldizurreta baserria Duque del Infantado-ren zen. Ordizian zituen bere ordezkioak, eta haien bitartez egiten zituzten ordainketa guztiak. Etxejabea, udan Lazkaora joaten zen. Haren inguruko kontuak. Jentilen inguruko pasadizoak.

### Transkripzioa

- Esaten duzu baserria dukearena zela.

- Bai.

- Zeuek erreterero...

- Bai, bai, bai, erreterero.

- Dukearekin harremana nolakoa izaten zen?

- Batez.

- Edo noren bitartez...?

- Horrek Ordizin zittun jarrita halako bere ordezkok. Nola zan familia hura? Urbiztondo o hola uste det zala. Eta haik kobratzen zoen erreterea. Hor, San Martin inguruun o izaten zan. Eta, gaiñea, eaman behar zitzaien erreterea eta bi kapoi. Pisu onekook, e? Kapoiak. Ta etxen ez bazeren [hain] pisukok kanpotio erosi behar. Ta [holako kontuak] aittuta nao nola ibiltzen zien. Eta bea etortzen zan uda parten Lazkaoa. Han palazio bat dao mojan paren —

ez dakit ezautzen dezun Lazkao—, bestalden. Edifizio oso ederra, e? Joe, Lazkaon daon ederrena bai. Eta hautza etortzen zan hura´re bere jende serbizio guztie hartuta hor etortzen zan.

- Dukea...

- El duque del Infantado. Horrek Ataunen zittun propiedade haundiik. Garai baten ejerzitoa izandakoa. Eta harek hemengo jentillek-eta esaten [zien horik]... Ataunen esaten due, ba, jentillen kontue ta?

- Bai.

- Horik bialdu zittun ta nausi in zan ta... Danana, e? Baso, baserri ta kristo guztik ein zan nausi.

- Orduan, hemen inguruan...

- Hemen Beasaiñen hiru baserri zittun, nik dakitela, e? Hiru baserri: Zaldizurreta, [Etxeubi] eta [Mariaras], han Ordiziko mugan. Harek Ataun alden zitun propiedade haundik.

## 10. Gaztaina klaseak: iñurria, bettargie, otañua, hosto beltza...

- **Erref:** BEA-039/010
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

### Laburpena:

<p>Errenta nola ordaintzen zuten; garai batean gariarekin ordaintzen zen. Gaztainadi handiak zituzten baserrian; gaztaina klase asko. Zein garaitan biltzen zituzten gaztainak. San Agustin gaztaina, Andra Mari gaztaina, latza, i&ntilde;urrio haundie, i&ntilde;urria, bettargie, bizkai gaztaina, ota&ntilde;u, hosto beltza, berde gaztaina, txakarroa. Lakarie, imi&ntilde;a-erdia.</p>

### Transkripzioa

- Eta, orduan, zeuek errenta-eta Ordiziko familia honi ordaintzen zenieten?

- Bai, bai. Hautza halako fetxatan juten zan ta errentea pagatzen zan.

- Eta garai baten, zuk aitari-edo entzunda, errenta gariarekin ordaintzen zela?

- Bai, bai, bai, bai. Hori aurreagokoa izan behar do oaindio.

- Oseake, aitak ya...

- Bai, bai, hainbeste anega ta holako kontuuk. Hori´re bai aittuta nao, bai, bai, bai. Gure etxen ez non ezautu hori [hala], baiño izaten zala bai. Gue etxen zeon... gaztiñadi haundik zittun. Gaztiña-klase pillo bat. San Agustiñetan hasten zan, agoztun atzenen o irailen aurreneko eunetan, ta santu guztin arte gaztiña biltzen, e! Ta etxea ekartzen gendun morkotsen, gaiñea. Kontserbatzeatio ta... Gure etxeko fuertena gaztaiñea zan, kriston lanak ematen ziuna. Bota eitten gendun hageekin, bildu ta etxea ekarri ta ganbaran holaxe lodi-lodi botatzen gendun morkotsa. Badakizu zer dan morkotsa, ezta?

- Bai, beran koskola, ez?

- Hori da, kanpokoa.

- Eta gaztain-klase asko esan duzu...

- Bai.

- Gogoratzen duzu izenen bat edo?

- Bai, bai, bai, bai. Pillo bat esango dizut, hamar igual esango dizut.

- A, bai, e? Jesus! Ia, bota.

- San Agustin gaztaiña, Andra Mari gaztaiña. Hori zan ia ekaiñen ze egunetan izaten da Andra Mari? Zazpin, zortzin... Osea, hori ya bigarren klasea. Hirugarrena: latza. Latza, zan arantza motzeko motz-motza, zulatzen zon morkots bat zan... Geo zien: iñurrio-gaztiña, iñurrio haundie ta ttikie. Bueno, iñurrio haundie ta iñurrioa. Geo zan bettargie.

- Eta iñurrioak ze ezaugarri zittun? Txikiagoa zen edo...?

- Ale izugarri ona, zoragarrie gaztaiñea. Gue etxen gehiena hua zeon. Zoragarrie. Ta bettargie zan... beak esaten do: morkotsa zan hain ederra, ttikie zan, baiño argie, argie, bettargie, beak esaten do: “begi argikoa” esan nahi do. Eta behin galdetu omen [zien] bati: “Hi, ze mokau eskauko huke jateko?” ta “Bettargin erdiko alea”. Hiru ale izaten zittun jenealen, ta beetzako mokauik hobena.

- Erdikoa...

- Erdikoa. Holako kontuk. Bueno, segi zagun. Gero bizkai-gaztiña´re bazan.

- Eta hau nolakoa zen?

- Hori´re beste honen igual txamarra zan, bettargi honen igual txamarra, ttiki xamarra. Geo zan otañu-gaztiñea. Geo zan hosto-beltxa; hostoa zon beltzagoa. Ta berde-gaztiña´re bai. [...] zeatio, ze diferentzie zon horrek ez naiz gogoratzen. Diferentek zien baiña erretzeko-ta oso onak, berezik zien. Eta zer gehiago? Otañue... Ta txakarroa. Txakarroa atzenekoa, santu guzin ingurun o biltzen zana zan. Ya urtaberek eitten zon, ba, zortzi egun lehenago o berandugo, ezta? Urtaberea nolakoa izaten dan...

## 11. Gaztainak eta neurtzeko moduak: anega, lakaria, imina...

- **Erref:** BEA-039/011
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:33:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Euskara » Lexikoa

### Laburpena:

Gaztaina klaseak. Garai batean, gaztainak erregalatzeko ohitura egoten zen. Neurriak; lexikoa: lakarie, lakari-erdie, imie, anega, anega erdie. Produktuak neurtzeko pisuak beranduagokoak dira.

## 12. Telleria eta Elozegi ardozaleak

- **Erref:** BEA-039/013
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:33:50. **Bukatu:** 00:36:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

### Laburpena:

<p>Ardoa zahagitan gordetzen zuten lehenago. Telleria eta Elozegi ziren Beasaingo bi ardozale garrantzitsuenak. Ardoa trenez ekartzen zuten, egurrezko kupeletan. Ardoa nola deskargatzen zuten Estazioan. Alondegia. Mikeleteak. Katea errepidean, herrira sartzen zen jeneroa zaintzeko gunea.</p>
 <p>

### 13. Beasaingo egoera ekonomikoa 1940 inguruan

- **Erref:** BEA-039/016
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:38:10. **Bukatu:** 00:39:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

#### Laburpena:

Beasaingo egoera ekonomikoa, lantegiak... hiltuna gaztea zenean. Bernedo 400 langile inguruko lantegia zen. Eibar oso ongi ikusia zegoen. Eibarko euskara.

### 14. Beasaingo lantegi handienak: Bernedo eta CAF

- **Erref:** BEA-039/018
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:41:45. **Bukatu:** 00:43:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

#### Laburpena:

Beasaingo egoera ekonomikoa; lantegi garrantzitsuak. Bernedo; CAF. Produksioa.

### 15. Garai bateko lan giroa Beasaingo kaleetan

- **Erref:** BEA-039/020
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

#### Laburpena:

Garai bateko lan giroa Beasainen: bizikleta ugari, langileak urdinez jantzita... Egoera ekonomikoa; beherakada handia azkenengo urteetan.

### 16. Trantsizio garaiko lan giroa Beasainen

- **Erref:** BEA-039/023
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:51:30. **Bukatu:** 00:52:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

**Laburpena:**

Trantsizio garaiko giroa: elkartasuna; mobilizazioa... Etorkizunaren inguruko kezka.

**17. CAF lantegia eta produkzioa**

- **Erref:** BEA-039/024
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:52:50. **Bukatu:** 00:56:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

**Laburpena:**

<p>CAF lantegia. Lan-produkzioa nolakoa zen.</p>

**18. CAF lantegian lan egiteko modua**

- **Erref:** BEA-039/025
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:56:50. **Bukatu:** 00:59:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

**Laburpena:**

Lan egiteko sistema zeharo aldatu da azkenengo urteotan CAF lantegian.

**19. Eskola kontuak: Karmelitak eta La Salle**

- **Erref:** BEA-039/027
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:01:10. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

**Laburpena:**

Eskola kontuak. Haur hezkuntza non ikasi zuen; Karmelitak; La Salle.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-09-07*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com